



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Ogasun eta Finantzetako diputatuak argitu dauenez, San Mames Barriko alokairua kontratuaren indarraldiaren 10 urte igaro eta gero barrikusiko da**

Ahozko itaun batek eta Bizkaiko Ahal Dugu taldearen agerraldi eskari batek, Athletic Club taldeak urtero San Mames Barria erabilteagaitik ordaintzen dauen 500.000 euroko alokairua ekarri dau Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko batzordera. José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuak adierazo dau 50 urteko epealdirako aurreikusita dagoan “erabilerarengatiko kanon” hori indarraldiaren 10 urte igaro eta gero barrikusiko dala eta, hortik aurrera, “bost urtez behin”. Aldundiko arduradunak eskaerea egin deutse batzarretako taldeei, une honetan Kontu Publikoen Euskal Epaitegia (KPEE) San Mames Barria soziedadearen 2007 eta 2014 arteko kontuen ganean egiten ari dan fiskalizazinoa bukatu arte itxaron daien, kontratuari eta haren klausulei buruzko balorazinoa egiteko.

Klausula horreetako batek eztabaidea sortu dau. Kontratuak adierazoten dauenez, Athletic Club taldeak zelaia “ia bape kostu barik” eskuratzeko eskubidea dauka, Bizkaiko Ahal Dugu taldeko Asun Merinero batzordekideak adierazo dauenez. Horri jagokonez, Iruarrizagak esan dauenez, alokairurako ezarri dan epealdia igarota, urtean 500.000 euro gehi BEZ ordainduta, Bizkaiko KPI-ri jagokon igoeragaz, Athletic Club taldeagaz sinatutako kontratuak talde zurigorriak zelaia erosteko aukerea izango dauela esaten dau, eta horren prezioa San Mames Barria soziedadearen barruan adostu beharko da. Klausula horrek esaten dauenez, aldeek (Athletic Club, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala eta Kutxabank) “konpromisoa hartzen dabe estadioa, ibilgetuaren balio garbiagaz erlazonauta egon beharko dan prezioan oinarrituta fedonez negoziatuko”, Iruarrizagak jakinarazo dauenez.

Diputatu jaunak argitu dauenez, zelaiaren eraikuntza lanak ordaintzen lagundu eben Herri Administrazioek beste abantaila gehigarri batzuk be baditue, alokairuaz gain, espazio jakin batzuk helburu publikoetarako erabilteko eskubidea daukielako. Holan, Aldundiari jagokonez, kontuan izan beharreko beste erabilera publiko batzuk dagoz, eta diputatuak horreen balioa “1,5 milioi eurokoa” izan daitekeala, eta horren onurak Bizkaiko gizarteak jasoko dituala esan dau. Erabilera horreen artean, urtean ekitaldi handi bi egiteko estadioa oso-osorik bere esku eukitea, “palko bi eta hamar aparkaleku” lagatea eta Vip aretoaren “urteko hamar erabilera” dagoz, ekitaldi instituzionalak egin ahal izateko, “400 pertsona jasoten dituan erabilera anitzeko aretoa” erabilteko aukerea izateaz gain. Akordioaren barruan Foru erakundeak estadio barruan turismo informazino puntua zabaltzeko eta etorkizunean eregiko dan museoaren babesleen artean egoteko aukerea be jasoten dira.

Iruarrizagak, zelaiaren eraikuntzak uriari ekarri deutzazan onurak be aztertu ditu. Horreen artean, inguru horretan guztian urigintza aldeko ordenamendua egiteko aukerea, unibersidadeko zentro barriak instaletea erraztuz, eta Bilborako sarbide barriak eregitea dagoz.

Batzarretako taldeak bat etorri dira esatean, printzipioz, alokairua “merkea” iruditzen jakela, baina gurago izan dabe gai horren inguruan kontuz ibiltea eta KPEE-k San Mames Barria soziedadearen 2007 eta 2014 arteko kontuen ganean egingo dauen fiskalizazinoa egin arteko balorazinoari itxarotea. Prezio hori ez ete da merkaduko prezioa baino askoz merkeagoa?



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Galdetu dau Bizkaiko Ahal Dugu taldeko Asun Merinerok. EH Bilduk errentea “oso merkea” dela uste dau, eta esan dau Aldundiaren “lehentasunak” beste batzuk izan beharko litzatekezala.

Halanda be, Javier Ruiz bozeroale popularrak esan dau, beste estadio publikoakaz alderatuta, Athletic Club taldea nahiko leku onean geratzen dala, une honetan, Villarreal, Celta, Deportivo, Valladolid, Alavés, Eibar edo Bilbao Basket moduko taldeek ez dabelako inolango alokairurik ordaintzen titularitate publikoko kirol instalazioak erabilteagaitik. Ruizek zelaiak eta Athleticcek sortutako eragin ekonomikoa azpimarratu dau: eraikuntza lanetatik Bizkaira itzuliko diran “104 milioi euroak” edo Athleticen urteroko “75 milioi euroak” eta “1.800 lanpostuak”, beste batzuen artean.

Carlos Totorika PSE-EE-ko bozeroaleak, bere aldetik, alokairuaren zenbatekoa “gitxi iruditzen jakola” esan dau, baina bere eretxiz garrantzitsuak diran beste alderdi batzuk azpimarratu ditu, Herri Administrazioek kontratuetan aseguru dituen espazio jakin batzuen erabilera publikoak, adibidez.

## IDOKI

Horren ostean, Iraskunde, Gobernamentu On eta Gardentasunerako Batzordean, Bizkaiko Talde Popularrak, Unai Rementeria Ahaldu Nagusia bertara etorteko egin dauen agerraldi eskaerea gauzatu da, Idoki enpresak jaso ebazan diru-laguntza publikoei buruzko informazioa emoteko. Azkenean, Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko foru diputatua agertu da.

Javier Ruiz Bizkaiko Talde Popularreko bozeroaleak adierazo dau behar bada “mesedeko tratua” egon dala enpresa horri diru-laguntzak emoteko orduan, bertako presidentea Ardanza Lehendakari ohia zalako eta merkataritza soziedadearen ahaldunetako bat haren alaba. Galdetu egin dau ea zelan dan posible likidazio egoeran dagoan enpresa batek Aldundiaren diru-laguntzak jasotea bere jarduerara aurrera eramateko, enpresea “eten barik galerak” jasaten egon arren. “Beharbada diruaren bidebako erabilteaz eta prebarkazioaz berbetan ari gara”, salatu dauenez.

Pradalesek jakinarazo dauenez, Idokik, 2006an kosmetikaren, farmaziaren eta elikaduraren arloetan estraktu naturalak erabiltera bideratutako bioteknologia sektoreko enpresak, hainbat laguntza lerro jaso ebazan zenbait administrazioetatik, ez bakarrik Aldunditik, baita Eusko Jaurlaritzatik eta Estaduko Gobernutik be. Laguntza horreek, enpresa beharrean egon dan 7 urteetan “13 lanpostu” sortu dituan proiektu berritzaileak bultzatu dabe.

Pradalesek esan dauenez, enpresak 255.000 euro jaso ebazan arrisku kapitaleko Seed Capital foru soziedadearen aldetik. Soziedade horren akziodunen artean, Aldundiaz gain, Kutxabank, Banco Santander, Banco Sabadel, Axa, Iberdrola edo El Corte Inglés moduko erakunde pribadu garrantzitsuak dagoz, beste batzuen artean. Aldundiaren ekarpena, aho batez emon eban Aldundiko 4 ordezkariak eta aitatutako erakunde pribadu horreen beste 4 ordezkariak osatutako inbertsio batzordeak.

Bigarren une batean, arrisku kapitaleko Seed Capital erakundeak, aho batez, 45.000 euroko bigarren laguntza lerroa zabaltzea erabagi eban, Idokiko arduradunek negozioa beste bide batzuetara zuzentzea erabagi ebanean, krisialdi ekonomikoa eta euren produktuak merkaduan sartzeko aurkitutako gaiztasunak zizala eta.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Foru Aldundiak emondako laguntzez gain, diputatu jaunak azpimarratu dauenez, Idokik jaso ebazan laguntzen %65 Gobernu Zentralak emondakoak izan ziran, I+G bultzatzeko plan nazionaletik urtendako “906.000” euro”.

Pradalesek eskaerea egin deutso PP-ri, ekintzaileak ez “estigmatizetako”, euren abizena eta joera politikoa dirala eta, eta, aldi berean, Seed Capitalek aurrera daroan beharra “balioan jartea” gura izan dau. 1991. eta 2014. urteen artean, soziedade horrek 84 enpresa lagundu ditu, %20 bioteknologiaren arloan. Horreetatik 31 proiektuk baino ez dabe porrot egin, eta hori “erabateko arrakastea” da, arrisku handiko inbertsinoak dirala kontuan izanda.

Pradalesek azpimarratu dauenez, euskal administrazioek sektore horren aldeko apustua egin dabe “Biobasqueren” bitartez, eta horri esker azkenengo 15 urteetan “ereite handia” egon da, eta PP taldea kritikau dau, proiektu “bideragarriak” baino ez dirala lagundu behar eskatu dauelako. “Ez bagara arriskatzen, zelan sortuko dogu existiduten ez zan sektore bat?”, erantzun deutso Pradalesek.

Jon Andoni Atutxa jeltzaleak, PP taldeak militantzia politiko jakin bat daukien pertsonen kontra aurrera daroazan “jazarpena eta estigmatizazioa” salatu ditu. “Frogak badaukazuz, aurkeztu egizu salaketea Fiskaltzan”, eskatu deutso, eta, aldi berean bozeroale popularraren jarrera kritikatu dau “salatu, epaitu eta zigortzeagaitik”, errubakotasun presuntzinoa kontuan izan barik. “Beste garai batzuetako” estrategia da.

Carlos Totorika bozeroale sozialistak be kritikau dau PP taldea, “jardunbide ustelari buruzko inolango daturik” ez eskaintzeagaitik eta “oinarri bako zurrumurrak” aurkezteagaitik. Bere ustez, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzza eta Espainiako Gobernuak erakunde “sinesgarriak” dira, eta kudeaketa publikoaren arloan beti dago arrisku bat proiektu barrizailleak laguntzen diranean. Bere eretziz, azpimarratzekoa da proiektua 300.000 euroko kapital pribaduagaz sortu izana, kudeaketan esperientzia eukien pertsonakaz eta teknologia propioagaz, eta banku erakundeek finantzen aldetik emondako onespengaz.

#### EZEZKOA ARDANZAREN AGERRALDIARI

Atsedenaldiraren ostean, Iraskunde, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Batzordeak ez dau onartu PP-k aurkeztu dauen proposamena, Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako Lehendakari izandakoa Batzar Nagusien aurrean agertu daiten, gai horri buruzko argibideak emoteko. EAJ-PNV-k atzera bota dau EH Bilduren eta Bizkaiko Ahal Duguren aldeko botoa jaso dauen popularren ekimena, eta PSE-EE abstenidu egin da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **El diputado de Hacienda y Finanzas aclara que el alquiler de San Mames Barria será revisado transcurridos 10 años de contrato**

Bilbao, a 28 de septiembre de 2015.

Una pregunta oral y una petición de comparecencia de Podemos Bizkaia, ha traído hoy a la comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales el alquiler de 500.000 euros que el Athletic abona anualmente por el uso de San Mames Barria. El diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha señalado que este “canon de uso” previsto para un periodo de 50 años, se revisará a los 10 años de su vigencia y, a partir de ese momento, de forma “quinquenal”. El responsable foral ha pedido a los grupos junteros que esperen a la fiscalización que, en estos momentos, estará realizando ya el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP) de la actividad de San Mames Barria, para llevar a cabo una valoración sobre el contrato y sus diferentes cláusulas.

Una de estas cláusulas ha sido motivo de discusión. Según el contrato, el Athletic Club se reserva el derecho de adquisición del campo “prácticamente a coste cero” según ha denunciado la apoderada de Podemos Bizkaia Asun Merinero. Al respecto, Iruarrizaga ha matizado que transcurrido el periodo de alquiler a razón de 500.000 euros anuales (sin IVA), con la correspondiente subida del IPC de Bizkaia, el contrato firmado con el Athletic establece una opción de compra por parte del club rojiblanco que deberá ser consensuada en el seno de la sociedad San Mames Barria. Según esta cláusula, las partes (Athletic, Gobierno vasco, Diputación Foral de Bizkaia, Ayuntamiento de Bilbao y Kutxabank) “se comprometen a negociar de buena fe” la venta del estadio sobre un precio que deberá estar ligado al “valor neto del inmovilizado”, ha advertido Iruarrizaga.

El diputado ha matizado también que las Administraciones públicas que apoyaron financieramente la construcción del campo tienen otras ventajas añadidas aparte de lo que obtienen por el alquiler, ya que mantienen derecho sobre la utilización para fines públicos de ciertos espacios. Así, en lo que se refiere a la Diputación, existen otros usos públicos a tener en cuenta que él ha cifrado, al año, en “1,5 millones de euros”, de los que se beneficia la sociedad vizcaína. Entre estas ventajas, ha citado la posibilidad de disponer enteramente del estadio para dos grandes eventos, la cesión de “dos palcos y diez plazas de aparcamiento”, u otros “diez usos anuales” de la sala vip para realizar eventos institucionales, además de la posibilidad de poder contar “con una sala multiusos con capacidad para 400 personas”. El acuerdo lleva aparejado también la posibilidad de que la Institución foral abra un punto de información turística en el estadio y de que forme parte de las entidades que patrocinen el futuro museo.

Iruarrizaga ha hecho también un repaso de los beneficios que ha acarreado la construcción del campo para la ciudad, entre los que ha destacado la posibilidad de realizar una ordenación urbanística de toda la zona, favoreciendo, entre otras actuaciones, la instalación de nuevos centros universitarios, y la construcción de los accesos a Bilbao.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## ALQUILER "BAJO"

Los grupos junteros han coincidido en que el alquiler, en un principio, les parece “bajo”, aunque han preferido ser cautos sobre el asunto y esperar a la valoración que haga el TVCP en su informe de fiscalización de las cuentas de San Mames Barria entre los años 2007 y 2014. “¿No está ese precio muy por debajo del mercado?”, ha preguntado Asun Merinero de Podemos Bizkaia. Para EH Bildu, que cree que la renta es “muy baja”, ha pedido a la Diputación que modifique las “prioridades”.

Pese a estas dudas sobre el arrendamiento, el portavoz popular Javier Ruiz ha señalado que, en comparación con otros estadios públicos, el Athletic sale bien parado, ya que en estos momentos clubs como el Villarreal, Celta, Deportivo, Valladolid, Alavés, Eibar o Bilbao Basket no abonan alquiler alguno por usar recintos deportivos de titularidad pública. Ruiz ha destacado el impacto económico que ha supuesto el campo y el Athletic: “los 104 millones de euros” de retorno económico para Bizkaia que ha supuesto la construcción y “los 75 millones de euros” anuales de impacto económico del club rojiblanco, además de los “1.800 puestos de trabajo”.

Por su parte, el portavoz del PSE-EE, Carlos Totorika ha señalado que el importe del alquiler “parece reducido” pero ha destacado otros aspectos “relevantes” a su juicio como los usos públicos de ciertos espacios que se han asegurado contractualmente las Administraciones públicas.

## IDOKI

A continuación, en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, se ha sustanciado la petición de comparecencia del PP que pedía la presencia del Diputado General de Bizkaia, Unai Rementería, para informar de las ayudas públicas que recibió la empresa Idoki. Finalmente, ha acudido a dar explicaciones el diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales.

El portavoz del grupo Popular Vizcaíno, Javier Ruiz, ha señalado que ha podido haber “trato de favor” a la hora de otorgar ayudas a esta empresa cuyo presidente era el ex-Lehendakari Ardanza, y su hija, una apoderada de la sociedad mercantil. Ha preguntado cómo es posible que una empresa en liquidación reciba subvenciones forales para desarrollar su actividad, a pesar de las “pérdidas continuas” que acumulaba. “Podríamos estar hablando de casos de malversación y prevaricación”, ha denunciado.

Pradales ha informado que Idoki, empresa del sector biotecnológico creada en el año 2006, dedicada a la aplicación de extractos naturales en la cosmética, en la farmacia y en la alimentación, recibió diferentes líneas de ayudas de distintas Administraciones, entre las que se encontraban, además de la Diputación, el Gobierno vasco y el Gobierno central. Estas ayudas han servido para vislumbrar un proyecto innovador que ha creado “13 puestos de trabajo” durante los 7 años que ha estado en activo.

El diputado ha señalado, asimismo, que la empresa recibió inicialmente una aportación de 255.000 euros a través de la entidad de riesgo foral Seed Capital, en la que además de la Institución foral en su accionariado se encuentran importantes entidades privadas como Kutxabank, Banco Santander, Banco Sabadel, Axa, Iberdrola o El Corte Inglés, entre otras



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

compañías. Esta aportación fue acordada, por unanimidad, por la Comisión de Inversiones de la entidad foral, formada por 4 representantes de la Diputación y otros 4 representantes de estas entidades privadas.

En un segundo momento, Seed Capital decidió conceder por unanimidad otro préstamo por un valor de 45.000 euros, una vez que los responsables de Idoki decidieron reorientar el negocio debido a la crisis económica y a las dificultades encontradas para comercializar sus productos.

Además de las inyecciones de Seed Capital, el diputado ha destacado que el 65% de las ayudas públicas que ha recibido Idoki a lo largo de su existencia, corresponden al Ejecutivo central, en concreto “906.000” euros”, salidos del Plan Nacional de I+D. En total, la financiación externa de la empresa fue de 1.401.528 euros. Por parte de la Diputación, se concedieron a la empresa, en el periodo 2011-2013, subvenciones a través de sus planes de apoyo a la innovación y a la competitividad empresarial que ascendieron a 164.000 euros.

Pradales ha acusado al PP de “estigmatizar” a las personas emprendedoras según su apellido o adscripción política, al tiempo que ha querido “poner en valor” la labor de Seed Capital. Entre el año 1991 y el 2014, esta sociedad ha apoyado la creación de 84 empresas, el 20% de ellas procedentes del sector de la biotecnología. De éstas, 31 han sido proyectos “fallidos” lo que viene a ser un “éxito rotundo”, teniendo en cuenta que son inversiones de mucho riesgo.

El diputado ha insistido en la apuesta de las administraciones vascas por este sector a través de “Bibasque”, realizando “mucho siembra” innovadora en los últimos 15 años y ha afeado al PP por apostar que las ayudas económicas se limiten a proyectos “viables”. “¿Si no arriesgamos como vamos a generar un sector que no existía?”, le ha preguntado.

El jeltzale Jon Andoni Atutxa, ha lamentado la “persecución y estigmatización” del PP hacia personas con cierta militancia política. “Si tiene pruebas vaya a denunciarlo a la Fiscalía”, al tiempo que lamentaba la actitud del portavoz popular por “denunciar, juzgar y condenar”, sin contar con la presunción de inocencia, en una estrategia de “otros tiempos”.

También el portavoz socialista, Carlos Totorika, ha criticado al PP por no ofrecer “ningún dato de práctica corrupta” y por deslizar “rumores infundados”. Cree que la Diputación, el Gobierno Vasco y el Gobierno español son instituciones “creíbles” para él y que, en la gestión pública, existe un riesgo consustancial cuando se apoyan proyectos innovadores. Para él, es de resaltar que Idoki naciera con un capital privado de “300.000 euros”, que aportaron personas de experiencia en la gestión y en el sector, y que contara con una tecnología propia, así como que fue apoyado financieramente por entidades bancarias privadas.

#### NO A LA COMPARECENCIA DE ARDANZA

Después de un receso, la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, ha rechazado una propuesta presentada por el PP para que compareciera en las Juntas Generales el exlehendakari del Gobierno Vasco, José Antonio Ardanza, en relación a este caso. PNV ha tumbado la iniciativa popular que había sido apoyada también por EH Bildu y Podemos Bizkaia, mientras que el PSE-EE se ha abstenido.